

II. BLOKEA

“How much do you know about cybersecurity?” (Zenbat dakizu zibersegurtasunaz?)



Etapia: 16 - 20+ urte artean.



Zailtasun-maila: oinarrizkoa edo ertaina



2 kide



Denboralizazioa: 8 saio



Etiketak: zibersegurtasuna, sarearekiko atxikimendua, alfabetatze mediatikoa, ziberdelituak, espiritu kritikoa, entzute aktiboa

Jardueraren deskripzioa: (4 lerro gehienez)

Ikasleek taldeka glosario bat egingo dute zibersegurtasunarekin lotutako terminoekin: dozentek ikasleak nazioarteko talde mistoetan banatuko dituzte, eta talde bakoitza alderdi batez arduratuko da (sare sozialak, aplikazioen erabilera, etab.). Ikasleek taldeka grabazioak egingo dituzte, Interneten nabigatzerakoan kontuan hartu beharreko aholkuak emanez. Bi produktuak (glosarioa eta grabazioak) TwinSpace-ra igoko dituzte.

Helburuak: (3 gehienez)

1. Internetek eragiten dituen manipulazioa eta arriskuak aztertzea, ikasleei espiritu kritikoa bultzatzeko aukerak emanez.
2. Informazioa partekatzeko tresna digital eta teknologikoak erabiltzea.
3. Trebetasun komunikatiboak, sozialak eta pertsonartekoak hobetzea.

Gako konpetentziak eta zeharkako gaiak:

- Hizkuntza-komunikazioa
- Konpetentzia digitala
- Konpetentzia sozial eta zibikoak
- Komunikabideetarako heziketa

- Aukera-berdintasuna eta bazterketa-eza
- Osasunerako heziketa

Curriculumeko edukiak:

Curriculumeko edukiak: Aholkua adierazteko egitura gramatikalak erabiltzea (behar duzu, beharko zenuke, gomendatzen dut, iradokitzen dut, aholkatzen dut] *should, ought to, recommend, suggest, advise*, etab.)). Ahozko eta idatzizko komunikazioa hobetzea, bereziki ingelesez. Herritartasun digital arduratsua. IKTen erabilera.

Inklusio-alderdiak: Jarduera honetan arrisku-egoerak hautemango dira baldintza sozioekonomiko, kultural edo erlijioso desberdinak dituzten adin bereko ikasleen artean. Onarpena, entzuteko jarrera, bestearekiko errespetua eta desberdintasunen integrazioa bultzatzen dira.

Aurreikusitako produktuak/ emaitzak:

- Taula/glosario bat (Google Docs, Powerpoint edo antzekoren bat), parte hartzen duen zentroarteko taldeek zibersegurtasunarekin lotutako terminologiarekin osatu duten glosarioaren batura izango dena, eta TwinSpace-ra igoko da egindako lanaren froga gisa.
- Kahoot, Quiznetic edo antzeko tresnaren batekin sortutako galdetegia/jolasa.
- Clymp.it-ekin egindako grabazioak, Interneten zer egin eta zer ez egin aholkatzen dutenak.

Jardueraren garapena



Prestatzea

1. urratsa

Dozente kide bakoitzak TwinSpace-ra gonbidatuko ditu bere ikasleak.



Tutoriala: [Nola gonbidatu ikasleak TwinSpace-ra](https://nola.gonbidatu.ikasleak.twinspace-ra).
< <http://etwinning.es/es/como-invitar-a-los-alumnos-al-twinspace/> >

Dozente kideetako batek orrialde bat sortuko du TwinSpace-n *A glossary of terms about cybersecurity* (Zibersegurtasunari buruzko terminoen glosarioa) izenburuarekin, eta bertan Google Docs edo antzeko dokumentu baterako esteka bat argitaratuko du, non ikasleek nazioarteko taldekatzea islatuko den. Talde bakoitzean, ikastetxe kide bakoitzeko ikasle bat egongo da gutxienez, eta, ahal dela, mistoak (neska-mutilak). Irakasle batek koordinatuko du talde bakoitza eta jarduera dinamizatuko du.



Tutoriala: [Nola sortu TwinSpace orri bat](http://etwinning.es/en/nuevo-twinspace-como-crear-una-pagina-de-actividades)
<<http://etwinning.es/en/nuevo-twinspace-como-crear-una-pagina-de-actividades>>

ETwinning Project

INDEX WORD GLOSSARY ON SAFETY

CLICK ON YOUR TEAM TO ACCESS
FASTER:

TEAM 1

TEAM 2

TEAM 3

TEAM 4

TEAM 5

1. irudia

2. urratsa

Lehenik eta behin, irakasleak zibersegurtasunarekin lotutako ingelesezko (beste hizkuntza bat) kontzeptuei buruzko galderak egingo dizkie ikasleei. Ondoren, ikastalde bakoitzak Interneteko esteka hauetan eta/edo beste euskarri batzuetan esanahia ezagutzen ez duten termino horiek bilatuko ditu:



<<https://www.cybintsolutions.com/20-cyber-security-terms-that-you-should-know/>>



<<https://www.globalknowledge.com/us-en/topics/cybersecurity/glossary-of-terms/#gref>>



<<https://spinbackup.com/blog/45-main-cybersecurity-terms-everyone-must-know/>>



<<https://comtact.co.uk/blog/cyber-security-glossary-of-terms-the-ultimate-list/>>

Kide den ikastetxe bakoitzeko ikasleek ziberjazarpenaren eta/edo delinkuentzia digitalaren arazoari aurre egiteko zer kontzeptu ikasi dituzten eta erabilgarrienak zeintzuk diren eztabaidatuko dute ikaskideekin.

3. urratsa

Irakasleek dokumentu kolaboratibo bat (Google Docs edo antzekoren bat) sortuko dute **1. urratsean** sortutako nazioarteko talde bakoitzarentzat, eta haren esteka txertatuko dute aurretik sortutako orrian, ikasleek sartzeko aukera izan dezaten.

TwinSpace

1

Pages

Agony aunt
Poster contest
Don't get trapped in the net!
Mixed country groups
TEAM 1
TEAM 3
Questionnaire about the research
Slogan contest
Interactive conversations about cybersecurity
> A glossary of terms about cybersecurity

A glossary of terms about cybersecurity

Create the shared glossary

You are going to visit, in groups, the following links to choose a word related to SAFETY on the Internet.

Recommended web pages:

<https://www.cybintsolutions.com/20-cyber-security-terms-that-you-should-know/>

<https://www.globalknowledge.com/us-en/topics/cybersecurity/glossary-of-terms/#gref>

<https://spinbackup.com/blog/45-main-cybersecurity-terms-everyone-must-know/>

<https://comtact.co.uk/blog/cyber-security-glossary-of-terms-the-ultimate-list/>

TwinSpace 1

TwinSpace

2

2. irudia

4. urratsa

Dozente bakoitzak 3 galdera prestatuko ditu, ikasleek **3. urratsean** osatu duten glosarioan oinarrituta, zeina TwinSpace-n aurretik sortutako orrian dagoen. Irakasleetako batek egindako galdera guztiak jasoko ditu eta galdetegi bat prestatuko du Kahoot edo antzeko tresnaren bat erabiliz. Irakasle horrek jolaserako esteka txertatuko TwinSpace-n, bat ikasleentzat eta beste bat irakasleentzat.

Irakasleek eguna eta ordua adostuko dituzte nazioarteko taldeetako ikasleek galdetegiari aldi berean erantzun diezaioten. Proiektuko ikasle guztientzat egun eta ordu egokiak aurkitzea zaila balitz, talde bakoitzeko ikasleek banan-banan erantzun diezaiokete galdetegiari.



Tutoriala: [Kahoot](#)

TwinSpace

3

Kahoots about the Cybersecurity glossary

Add item

For students

[Link](#)



For teachers

[Link](#)



TwinSpace 3




3. irudia

4. irudia

5. urratsa

Dozentek haien ikasleen parte-hartzearen berri emango dute argazki eta pantaila-irudien bidez, baina beti ikasleen pribatutasuna errespetatuz. Irakasleek TwinBoard bat sortuko dute eta argazki eta pantaila-irudiak erakutsiko dituzte.



[Nola sortu TwinBoard bat](#) (bideoaren 2. zatia)

6. urratsa

Ikastalde bakoitzeko irakasleek TwinSpace-ko TwinBoard-en bertan aztertuko dituzte galdetegiaren/jolasaren emaitzak. TwinBoard-ean, ikasleek jardueran parte hartu izanaren frogak utziko dira.

7. urratsa


Irakasle batek orrialde bat sortuko du TwinSpace-n, ikasleek ekipoen bidezko zibersegurtasunari buruzko aholkuak grabatzeko eman behar dituzten urratsekin (egin beharko liratekeen gauzak eta egin ez liratekeen gauzak, «Should» eta «shouldn't» erabilita), glosarioa osatzeko egin den taldeen banaketa berarekin. Ikasleek aplikazio bat erabili beharko dute, Clyp.it edo antzekoren bat, ahotsak grabatzeko. Gainera, irakasleak orrialde bat sortuko du TwinSpace-n, ekipo bakoitzaren grabazioak erakusteko.



Tutoriala: [Clyp.it](#)



Security area: Recordings on advice



TwinSpace 4

8. urratsa

Ebaluazioa: Dozente batek «Ebaluazioa» izeneko orrialde bat sortuko du TwinSpace-n, zibersegurtasunari eta proiektuaren garapenari buruzko galderak dituen galdetegi bat prestatuko du, eta aipatutako orrian partekatzen du. Quizizz edo antzeko tresnaren bat erabil dezake.



Tresna: [Quizizz](#)

Orrialde horretan bertan, irakasle batek eztabaida bat irekiko du, jardueran zer ikasi duten jakiteko.

Ikasleak TwinSpace-ra sartuko dira, galdetegiari erantzungo diote eta eztabaidako elkarrizketan erantzungo dute.

Emaitzak baliagarriak izango dira, batetik, irakasleek zehazteko ikasleek helburuak zenbateraino lortu dituzten eta, bestetik, proiektua nola garatu den jakin dezaten.

Irakasle bakoitzak bere ikastaldearen emaitzak aztertu eta komentatuko ditu (Quizizz programako txostena deskarga dezake) eta orrialde berean argitaratuko ditu.



TwinSpace-ko tresnak / kanpoko 2.0 tresnak:

TwinSpace: orrialdeak eta TwinBoard.



Beste tresna batzuk

- [Google Docs](#)
- [Kahoot](#)
- [Clyp.it](#)
- [Quizizz](#)